

etxe dotore aunitz

GOIZ EDER ITURAIN



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

GOIZ EDER ITURAIN

Etxe dotore aunitz

ETXALAR-ARANTZA-LESAKA-BERA

“ARANTZAN ETXEBIZITZAK SALGAI, irakurri baldintzak” iragarki hark begiak ireki zizkidan. Baldintzak betetzen ez baintuen ere bi urtez bertan erroldatua egotea, beti hartzekotan nituen oporrak izateko balio izan zuen. Giza baliabideetara jaitsi eta eskaera egin nuen. Bilbotik atera eta amama Mari Luz jaiotako lurra ezagutzera, Nafarroara ihesaldi bat egitea erabaki nuen. Agian Arantzan etxebizitza eros genezake?

Amamak oparitutako giltzaria talisman moduan poltsikoan gorde eta Nekaneri whatsapp bat bidali nion:

“Banoa. Opor batzuk behar ditut, petralduta nabil azkenaldian. Bakarrik joatea erabaki dut, bion oporrak bateratzea ezinezkoa baita. Arantzako aterpetxean egun batzuk igaroko ditut, askotan esan didazu bakarrik bidaiatzen ikasi beharko nukeela eta kasu egingo dizut. Biontzat etxeren bat aurkitzen saiatuko naiz. Agian zeuk ere tarte bat hartu eta etor zaitezke. Muxuak”.

Giza baliabideetako Martini oporrak eskatu eta aio, Pelaio! Euskaraz arnastu, mendiko bakea usaindu eta erritmo aldaketaren bila abiatu nintzen. Bide batez, tradizioa eta istorioz beteriko lurraldea ezagutu, eta bertako etxeen prezioak aztertzea zen plana. Kotxeko GPSa martxan jarri eta Arantzara abiatu nintzen. Bidea luze egin zitzaidan, errepidea bihurgunez osaturiko sigi-saga luzea baita, baina iritsi nintzen, “ARANTZA - ONGI ETORRI”. Kotxea aparkalekuan utzi eta Nekaneren erantzuna irakurri nuen:

“Primeran iruditzen zait. Bazen garaia inoren onarpenik gabe zeure erabakiak hartzeko. Bakarrik egoten ikasi behar dugu. Tarteka zure mezuren bat gustura jasoko dut. Disfrutatu, matte”.

Martxoaren 3a, asteartea

ARANTZAN ESNATU NINTZEN. Eguneroko iratzargailuaren beharrik gabe, lasai.

Gosaltzera aterpetxeko jantokira jaitsi eta Klemen izeneko emakumea gosaltzeko zer nahi nuen galdezka hurbildu zitzaidan. Eguna nola igaro programatu behar nuen; nondik hasi?

—Barkatu, Klemen! Arantzako etxeak interesatzen zaizkit, harrizko etxe dotoreak ikusi ditut, ondare ederra duzue.

—Bai, egia esan, nahiko zaindua dugu herria; hala ere, utzikeria ikus daiteke, badira erortzen ari diren eraikuntzak, badakizu, familietako herentzia amaiezinak. Anitz dira lan bila herritik alde egin dutenak, eta gaurko gazte asko, aldiz, herri handiagoetara joan da bizitzera.

—Agian etxe horiek erosle bila dabiltza?

—Bai horixe! Jende gaztea behar dugu herrian. Etxeren bat erosteko interesa duzu? Arratsaldean emakume taldea elkartzen gara Jubilotekan, han izanen duzu nahi adina informazio etxebizitzez, baita bertzeko kontuak ere. Hurbil zaitetz arratseko 18:00etan.

Inguruak ezagutzeko aprobetxatu nuen goiza. Martxoaren hasiera izanik ere, eguzkiak ongi berotzen zuen. Izpirituen santutegi bat zela entzuna nuen, eta harantz abiatu nintzen, San Juan Xar leizean dagoen baseliza txikirantz.

Galtzada zaharretik abiatu nintzen, Arrata erreka ondoko bidexkari jarraituz. Ingurune baketsua, atsegina eta bertako kondaira berezia:

“Duela urte asko artzain bat triste omen zebilen bere emaztea gaixorik zegoelako. Egun batean lamina bat agertu zitzaion lagundu nahian, eta honek bere emaztea iturriko urez bustitako oihalez igurtziz gero, oihalak lehortzen zirenerako sendatuko zela esan zion. Baldintza bakarra jarri zion: inori ez kontatzeko gertatutakoa. Artzainak jarraibideei segitu zien eta, oihalak lehortu zirenean, emaztea sendatu egin zen. Gizona hain pozik zegoenez, korrika joan zen gainerako herritarrei kontatzera. Biharamunean, lamina berriro agertu zitzaion eta sekretua gordetzeko gai ez izateagatik harri bihurtu zuen”.

Baselizara iritsi bezain laster, bertan topatu nuen San Juan Xar irudikatzen duen harrizko eskultura. Baita azaleko eritasunak sendatzen dituzten hiru iturriak ere; uraren erritua egin eta Arantzara bueltatu nintzen.

Arratsean, Jubilotekako taldearekin bildu nintzen: Pili, Klemen, Silbestra, Eugeni... denak tertulian jarduteko prest. Bertako etxe eta bizimoduaren berri eman zidaten, garai bateko dendak, erromeriak, ilun ezkilak... Salmentan etxe ederrak izaten omen dira Arantzan, Aranibar jauregia hauetako bat izan zitekeela adierazi zidaten.

Eguna etxerik ikusi gabe eman banuen ere, bertako bakea usaindu nuen. Ohera sartu aurretik Nekaneri audio whatsapp bidali nion.

“Eguna primeran pasa dut, baina zure falta sumatzen dut. Zu zelan? Ondo lo egin. Muak”.

Martxoaren 4a, asteazkena

ARANIBAR JAUREGIRA hurbildu behar nuen, baita Arantzan salgai zegoen beste etxebizitza bat ikusi ere. San Juan Xarreko bidean zegoen Aranibar, eraikuntza ikusgarria, misterioz eta istorioz beteriko dorretxea. Bidean behiekin borrokan zebilen gazte batekin topo egin nuen.

—Kaixo! Aranibar jauregira noa, bertakoak ezagutzen al dituzu?

—Bertan bizi naiz. Dagoeneko aranaztarrek Aranibar izenez ezagutzen naute.

—Unai zara?

—Bai, ni neu.

Unaik Leon Aranibar inkisidorea, Txilera joandako obispoa, larretxetarrak, burdinola eta hainbat pasarte kontatu zizkidan Aranibar jauregia erakusten zidan bitartean. Jauregia bitan banatua zegoenez, beste erdia erosteko aukera izan nezakeela esan zidan; ez zitzaidan ideia txarra iruditu.

Aranibar giblean utzi eta herri barrenean zegoen etxebizitza ikustera abiatu nintzen, etxe-agentziako Eiderrekin. Etxea ederra zen, bertako harri eta egur ederrez eginiko eraikuntza, baina zaharberritzea beharrezkoa zuen. Arratsaldean, mezetara joan nintzen. Ez fededuna naizelako, baina Jubilotekan izan nintzenean gonbitea jaso nuenez, eliza barnetik ikusteko aukera aprobetxatzea erabaki nuen.

—Zeu ere elizara? Gazte gutxi ikusten ditugu mezetan. Gaur Hausterre eguna dugu, sartu, sartu! Elizkizunean hogeit bat pertsona bildu ginen. Apaizak Hausterre egunaren esanahia azaldu ondoren, denok zutitu eta ilaran berarengana hurbildu ginen. *“Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara”* esaten zuen bitartean, gurutzea marrazten zigun kopetan. Intsentsu usainaren eta liturgiaren partaide bihurtu nintzen. Nire eserlekura bueltatzerakoan, aurrean eserita nuen emakumeak egin zidan agurra memorian iltzatua geratu zitzaidan. Aspaldian ez nuen horrelako aurpegi atseginik ikusi; ile zuria, begi urdinak, emakume irribarretsua, azala zimurrez betea izan arren benetako edertasuna islatzen duen horietakoa. Jubilotekan ezagutu nuen Karmele zen. Ikuskizun hartan nahiko parte hartu nuela erabaki eta amaitu aurretik alde egin nuen.

Zerbait hartzera hurbildu nintzen Pablo Eneara. Ordaintzeko dirua ateratzera nindoanean, nirea ez zen diru-zorro bat aurkitu nuen poltsan. Elizan norbaitek nahastuta sartuko zidala pentsatu

nuen, narruzko diru-zorro zahar bat zen. Berau barraren gainera atera eta ireki egin nuen. Barnean tolestutako paper bat zegoen, “LEIRERENTZAT” irakurri nuen. “Leirerentzat? Niretzat?”, kuriositateak hartuta papera zabaldu nuen.

“Lan gaua. Hauen etxeetan aurkituko duzu bidea. ALEBEko herriek dute g...”

Azken hitza irakurtezina zen. “G...” Zer esan nahi zuen mezu hark? Papera berriro tolestu eta diru-zorroan gordetzera nindoanean, beste zerbait ukitu nuen, harri zuriz eginiko “P” letra, domina bat zirudien. Begirada jaso nuenean elizako emakume talde bat tabernara sartzen ikusi nuen. Diru-zorroa beraiena ote zen galdetu nien, baina ezezkoa jaso nuen erantzun. Une hartan, Kar mele nigana hurbildu eta:

—Ezer ez da kasualitate, zure zain nengoen —xuxurlatu zidan.

Kopetilun begiratu nion.

—Zentzuzko erabakiak hartu, jarraitu etxeen ibilbidea eta dena argituko duzu.

Hitz horiekin agurtu eta beste emakume taldearengana alde egin zuen. Urduri sentitu nintzen. Zer zioen, nire zain? Afaldu ere egin gabe ohera sartu nintzen. Lo hartzea kosta zitzaidan, apaizaren eta Karmeleren hitzak bueltaka nituen. *“Oztopoz beteriko egunak izango ditugu. Zure zain nengoen. Berrogei egunez otoitzean eta barau egiten egonen gara. Jarraitu etxeen ibilbidea”.*

Martxoaren 5a, osteguna

IDEIA ZURRUNBILO HAREKIN OHERATZEAN, Nekaneri eguneroko mezua bidaltzea ere ahaztu egin zitzaidan. Diru-zorroa eta Karmeleren hitzak bueltaka izan nituen amesgaizto moduan, eta gaueko lo orduak goizeko lo bihurtu nituen. Salto batez ohetik atera eta jantokira jaitsi nintzen.

—Posible da gosaltzea?

—Noski, atzoko berdina aterako dizut?

—Bai, milesker, Klemen.

Bi egun neramatzan Arantzan, eroso sentitzen nintzen; Klemenek amaxoren papera betetzen zuen, eta herritarrekin lortu nuen harremanak bertako sentiarazten ninduen.

—Atzo diru-zorro bat aurkitu nuen elizan.

—Elizan? Ez zuen diru askorik izango.

—Ez, dirurik ez, baina paper bat zuen barruan “Lan gaua. Hauen etxeetan aurkituko duzu bidea. ALEBEko herriek dute g...” zioen.

—Lan gaua? Galde iezaiozu Luziori!

—Luzio?

—Bai, hark nahiko kontu badakizki.

—Eta Luziorekin hitz egiteko aukerarik izango nuke?

—Noski, Lesakara jaistekoa naiz. Zatoz nirekin, hogei bat minututan bertan izango gara eta Luziori dei bat egingen diot.

Gosaltzea bukatu bezain laster, Lesakarantz abiatu ginen. Eguna argi esnatu bazen ere, trumoi giroa nabari zen. Lesakara iristean euria barra-barra ari zuen. Urteak ziren bertan egon ez nintzela. Luzio zain geneukan Onin errekaaren giblean dagoen Estol Ttikiko arkupeen babesean.

—Bai, ni Mariania etxean jaio nintzen, Arantzan. Badakizu hemen zer esaten den “Izena duenak badu esana”. Inguru hauetan bada nahiko kontu etheen inguruan.

Klemenek enkarguak egin bitartean, Luzioren gonbita onartu eta haren etxean, kafe baten inguruan, kontu-kontari jardun genuen.

—Neu ez naiz gau lanean aritutakoa, baina amaxi Ines bai, zaldi gainean ibiltzen omen zen. Emakume baliente, makina bat bizipen izan zituen, haien artean etxea erre zenekoa. Ondo

gogoan dut gau hura. Gaur egun Arantzako frontoia dagoen tokian zegoen eraikuntza. Etxe handia zen, 1951. urtea zen, azaroaren 26a. Ganbaran belarra egoten zen, eta su hartu zuen. Gogoratzen dut gau hartan amak taloak egin zituela. Gaueko biak aldera sutan hasi zen, lotan ginenean. Dena erre zen, animaliak ere bagenituen eta ezin izan genituen salbatu. Amatzik platerak ateratzea lortu zuen, 1900. urtekoak, benetan politak. Sukaldeko arasan izango da baxera. Mapa gordetzen duen liburua ere apalategiren batean gordea izanen dut.

—Mapa?

—Bai, amatzik asko irakurtzen zuen, eta liburuen artean bazuen mapa bat gordea.

Sukalderaino hurbildu eta amatziren platerak atera zituen Luziok. Portzelanazko plater dotoreak, hondo zurian eguneroko bizitzako eszena eta etxebizitzaren irudiekin apainduak. Haiek behatzen nituen bitartean, Luziok amatziren mapa atera zuen liburu baten barnetik.

—Inguruko herrien mapa da, garai bateko lan gaueko ibilbideak ageri direla uste dut.

Eskuz egindako mapa zirudien; herrien izenak eta hainbat ibilbide X bidez markatuta ageri ziren.

—Argazki bat atera diezaioke?

—Bai, noski. Mapa zahar bat da, baina amatzik bazion kariño berezia. Askotan mapari begira harrapatzen nuen. Liburu batetik bestera ibiltzen zen mapa. Amatziren hainbat liburu kultur etxera eraman nituen, etxean ez baikenien inork kasurik egiten.

Luziori eskerrak eman eta Arantzara bueltatu nintzen Klemenekin. Honek Lesakan gazte batzuk kooperatiba moduan eraberritzen ari ziren etxebizitza baten berri eman zidan, erosteko aproposa izan zitekeelakoan.

Arratsaldean, euriak tregoa eman zuenez, berriro Lesakara jaitsi nintzen. Erdi Aroko karrika haietan, zubi eta erreka inguratua eroso sentitu nintzen. Kultur etxeraino hurbildu nintzen; honen ondoan, karmeldar oinutsek Nafarroan izandako komentu nagusietakoa izandakoa aurkitu nuen. Atea irekia zegoenez barneraino sartu nintzen. Garai bateko eszena eta erretratuak ikusgai ziren oraindik.

—Zerbaitetan lagun zaitzaket? —erran zidan ahots batek.

—Ez! Liburutegiaren bila nenbilen.

—Zortedun zara, ni neu naiz liburuzaina. Goazen.

Liburuzainak amatxi Inesenak izandako hainbat liburu erakutsi zizkidan. Pio Barojak idatzitakoak ziren haietako asko. Liburu bat maileguan hartu, maparen argazkia inprimatu eta herrigunera bueltatu nintzen.

Herriko ostatuan kafe bat hartu bitartean, herriko plano eta amatxi Inesen mapa aztertzeari ekin nion. Mapa sinbolo, ibilbide, etxe eta irudiz betea zegoen, ertz batean zerbait idatzia zuen. Ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena. Kaligrafia dardaratiaz idatzitako zera irakur zitekeen: “Lan gaua. Hauen etxeetan aurkituko duzu bidea. ALEBEKO herriek dute g...”. Aho bete hortz geratu nintzen, amaxiren mapak eta diru-zorroko mezuak zerikusia zuten? Tabernatik agurtu ere egin gabe atera nintzen, noraezean, esaldi hauen atzean zegoena ulertu nahian. Ezkilen hotsek Tourseko San Martin elizaraino eraman ninduten.

Elizako banku bakarti batean eseri eta lasaitzen saiatu nintzen. Mapa eskuan hartu eta berriro irakurri nuen alboan zuen mezua. Maparen erdi-erdian bide luze bat ikus zitekeen, hainbat ibilbide markatuta, etxe batzuk izen eta guzti, irudiak... Erdiko bide luzea Bidasoa ibaia izan zitekeen. Eliza ilun zegoen, atzeko leihotik sartzen zen argi izpiak margolan bat argizatzen zuen. Bertara hurbildu nintzen, Jesusen gurutze-bidearen irudiak ziren. Koadro bakoitzak gurutze bat zuen gainean, eta zera irakur zitekeen “Pili...”, amaiera irakurtezina zen. Eseri eta une luze batez mapa aztertzeari ekin nion. Lesakako eraikuntzen izenak? Minddurenea dorretxea, eliza... Pili, bai Pili irakur nezakeen mapan ere. Zer zen Pili? Lesakako plano atera nuen amaxiren maparekin alderatzeko. Minddurenea etxea ageri zen bi mapetan; elizatik hurbil zegoenez, bertaraino hurbildu nintzen. Harrizko eskailera-mailan, hamaiketakoa jaten zeuden lorezainengana hurbildu nintzen.

—Hemen inguruan ba al da Pili, Pilienea edo antzeko izena duen etxerik?

—Pepitenea, Adamenea, Juanamenea, Yoanderrenea, Minddurenea bai, baina Pilienea ez. Ez zait izen hori ezagun egiten —esan zidan sorbaldak goratuz.

—Beharbada! Atzean dugun gurutzeak Pilirik izena du —esan zuen beste lorezainak.

Pilirik gurutzea izan zitekeen bilatzen ari nintzena. “X”ek gurutzea irudikatzen zuten?

—Pilirik! Izen xelebrea, ezta? —erantzun nion.

—Xelegea da gurutzeaz kontatzen dena.

Eta istorio hau kontatu zidaten:

“Garai batean, jainkoaren existentzia zalantza jartzen zuen edozein, mingainetik, herdoildutako iltze batetik, zintzilik jartzeko eskubidea zuen alkateak gurutze formako zutabe honetan. Ikuskizun publikoa izaten zen. Honez gain, esaten da gaizki portatzen ziren haurrak eztiarekin igurtzi eta gurutzera lotzen zituztela, eskarmentu publikotzat, euliak hauengana joateko eta molestatzeko”.

Benetan berezia, baina zertarako zuen amaxik markatua? Mugikorra dardarka hasi zen une horretan. Enara zen. Arratseko 17:00etan geratua nintzen etxea ikusteko eta 17:30 ziren jada, guztiz ahaztua nuen hitzordua. Mapa alde batera utzi, eta etxea ikustera abiatu nintzen.

Lau gazteren artean erositako eraikuntza zen, kooperatiban sartzeko kide berri bat bilatu nahian zebiltzan. Etxe ederra, kanpoko harria garbitu eta hainbat habe aldatzen ari ziren, barnean lau edo bost etxebizitza egiteko proiektua zuten. Gustatu zitzaidan, Nekane eta bion ezkutalekua bihur zitekeen.

Egunak iluntzera egin zuen berriro eta, ekaitzak harrapatu baino lehen, Arantzako aterpetxera abiatu nintzen. Ohera sartu aurretik Nekaneri idatzi nion:

“Kaixooo. Zer moduz zabilta? Jada nitaz ahaztu zara? Inguru hau ederra da. Etxe bat edo beste ikusi ditut, zeuk ere ikustea gustatuko litzaidake. Atzo zerbait harrigarria gertatu zitzaidan. Etor zaitez asteburua pasatzera eta kontatuko dizut.

Laster arte. Matte”.

Martxoaren 6a, ostirala

JAIKI BEZAIN LASTER, mapa hartu nuen. Diru-zorroko mezuak eta amaxiren maparen arteko lotura zein zen jakiteko Karmelerengana jo behar nuen, aurkitutako mezuarekin zerikusia izan zuelakoan nengoen.

Karmele non bizi zen ez nekien, baina Arantzan denek denen berri dutenez, ez zen lan zaila izan hura. Karmelek etxeko atea ireki eta barruraino gonbidatu ninduen. Sukalde hartako usainek nire amamaren sukalderaino eraman ninduten.

—Lukainka mutur bat probatuko duzu, noski! Ziur halakorik ez duzula aspaldian probatu!

Eta bai, arrazoia zuen, gozoa zegoen oso. Poltsatik diru-zorroko mezua atera eta erakutsi nion.

—Gaur egun, begien aurrean ikusten ez duguna ez dela gertatu uste dugu. Ikusten duguna ere ez dugu sinistu nahi izaten askotan. Nondik gatozen jakitea behar-beharrezkoa da, nora goazen jakiteko. Ez gaitezen ahaztu garai batekoek egindako lanaz. Ez dakit, baina, zu ikustean, pertsona aproposa zinela jakin nuen lehen segundotik, bihozkada bat izan zen.

Amatxi Inesen mapa atera nion ondoren.

—Zer da kontrabandisten mapa? Zer esan nahi du zure mezuak?

—Ez galdetu gehiegi, eta ez atera mapa non-nahi. Bidearen amaieran elkartuko gara. Bortzirietako beste herriak ere ezagutu beharko zenituzke, ibaiaren bi bazterretan kokaturik dauden herriak. Mugarekin sigi-saga egiten duten bideak zeharkatu. Eta ez ahaztu, egin zenutelako gara...

Etxe hartatik sartu bezala atera nintzen. Inguruko herriak ezagutzeko gomendioa, besterik ez nuen jaso. Pilirik gurutzeak amaxiren maparekin zuen lotura aurkitu nahi nuenez, Lesakarekin hasiko nintzen. Arantzako herria alde batera utzi eta Lesakako Matxinbeltzenea aterpetxean kokatu nintzen. Handik, Pilirik gurutzeraino abiatu nintzen; bertan makulua zeraman gizonezko bat hurbildu zitzaidan.

—Arratsalde on! Bart, gurutzearen eskailera-mailan eserita zeuden gizonezkoekin hitz egiten ikusi zintudan.

—Bai, hemen izan nintzen.

—Eskailera-maila horietan jada ez da inor esertzen. Garai batean, denok hemen biltzen ginen. Goizeroko gure kuartela bilakatu zen, hauxe, Pilirik gurutzea. Eta zu nongoa zara?

—Bilbotarra, baina birramona nafarra zen. Amatxi Iñaxi. Zu bertakoa zara?

—Bai, Lesakan jaioa naiz. Garai batean baserrian bizi ginen, baina orain semearekin herrian bizi naiz. Jada ez naiz baserriko lanak egiteko gauza. Garai batean bai, egun eta gau lanean jarduten genuen. Gauaren nondik norakoak prestatu, eta ondoren bakoitzak eguneko martxa jarraitzen zuen. Haiek bai garaiak!

—Gauaren nondik norakoak esatean, kontrabandoaz ari zara?

—Lan gaua deitzen diogu. Herri osoak hartzen zuen parte.

—Bideak ezagutzeko maparen bat izaten zenuten?

—Mapa ez nuke esango. Bideak buruz genekizkien, ez zen beti bide bera izaten, eltzetzu edo guardiei iskin egiteko makina bat estrategia ikasi genituen. 25-35 kiloko kargekin bide luzeak egiten genituen. Taldean ibiltzen ginen beti. Elkar zaintzea oso garrantzitsua zen, taldean konfiantza izatea beharrezkoa zen. Kontu garbitzeak ere izan ziren tartean. Badakizu, ezkila nahi ez duenak aditu, ez dezala soka mugitu.

—Kontu garbitzeak?

—Bai, erabili behar ez zena erabiltzeagatik. Depositua ez zen erabili behar, beharrezkoa zenean bakarrik. Hor nonbait galduak izanen dira oraindik ezkutatutako deposituak.

—Depositua? Zer dira deposituak?

—Zerbait gertatuz gero taldean gordetako koltxoia, urrea, dirua... denetarik izaten zen. Leku ezkutuan gordea izaten zen, ez genuen beti jakiten non gordea zen. Horretarako, mapak edo plano bereziak izaten genituen, argitu beharreko bide eta kokalekuak. Ez da erraza, hainbeste diru gordea dela jakinda tentazioari eustea, horregatik zenbat eta gutxiagok jakin hobe.

—Eta zuk bazenekien non zegoen zure taldeko depositua?

—Baten berri izan nuen, baina etxeko emakumeek gordetzen zuten honen berri gehienetan. Emakumeek sortzen zituzten mapak, hizkuntza propioa izaten zuten, irudiak, hitzak... bidea jarraitzea ez zen erraza izaten, tartean bideak aldatu behar izaten ziren zenbaitetan, baita azken gotorlekua ere. Geziek alde batetik bestera eramango zaituzte —jarraitu zuen Pilirik gurutzea seinalatuz.

Eskuan zuen makuluarekin Pilirik gurutzea behin eta berriz seinalatuz alde egin zuen agureak. Zer zen seinalatzen zuena? Harrian zerbait idatzia? Gurutzea inguratzen zuten burdinazko eraztunak? Bi eraztunen artean zerbait markatuta zegoela ohartu nintzen: “z-i-a”.

Aterpetxeraino igo eta gelan utzia nuen mapa ireki nuen. “Z-i-a” bilatzen aritu nintzen, baina ez nuen mapan ezer aurkitu. Googlen ALEBE hitza sartzea bururatu zitzaidan eta zera irakurri nuen: “‘Alebe’ termino zahar edo dialektal baten erreferentzia dela dirudi, ziurrenik ‘aleve’ hitzarekin lotua. Zenbait testuinguru historikotan, ‘aleve’ (edo ‘aleff’ bezalako aldaerak) traizio-delitu bat da, oro har traizio osoa baino larritasun gutxiagokoa. Testu zaharretan ere aurkitu izan da, ‘bizio’ edo ‘lotsa’-ren sinonimo gisa”.

Traizioa? Lotsa? Agureak kontatutako deposituaren mapa ote zen amatxi Inesen mapa? ALEBEko herriek dute g... Pilirik gurutzeko gizonezkoak traizioaz, kontu garbitzeaz hitz egin zidan. Mapari erreparatu nion. Erdiko marra gorria ibaia zen, Bidasoa. Pilirik gurutzea zen, agian “g”k gurutzea adierazi nahi zuen? X moduan nituen irudiak gurutzeak izango ziren. Gurutze haiek zeintzuk ziren deskubritu behar nuen.

Onin errekaen murmurioa entzunaz liburutegitik hartutako “La familia de Errotacho” liburua begiratzeari ekin nion. Berako hainbat gertaera kontatzen zituen, ezagutu beharreko herria zirudien. Une hartan, mugikorrean aspaldian entzungabeko doinua entzun nuen, Nekane zen.

—Kaixo! Bizi al zara?

—Nekane! Non zabiltza? Bazatoz?

—Museotik atera berri... Eta zu? Zertan zabiltza?

—Barojaren liburu bat ikuskatzen, “La familia de Errotacho”.

—Ezaguna egiten zait izenburua, baina ez dut irakurtzeko betarik izan.

—Etorri! Elkarrekin irakurri eta barojatarren etxea ere ezagutuko dugu.

—Ez dakit...

—Asteburua! Lekuren bat aurkituko dut Beran! Ez dut ezezkorik onartzen.

Hurrengo egunerako cicerone lanak prestatu behar nituen. Beran elkartuko ginen. Maparen istorioa gibelean utzi eta Nekaneri beharrezko harrera egiteko Berako turismo bulegoaren bila abiatu nintzen. Gizonezko batek artatu ninduen, baita informazio franko eman ere, ostatuak, jatetxeak, herria ezagutzeko audiogida... XVIII. mendean eraikitako hotel bati buruz ere hitz egin zidan eta bertan hartu nuen logela. Istorioz beteriko Churrit hotelean.

Martxoaren 7a, larunbata

EGUNAK ARGIA URRATU AURRETIK hasi nintzen esnatzen, goizeko 07:00ak inguru ziren. Hoteleko aparkamendura iristean Nekaneri kokalekua bidali eta harrerara sartu nintzen.

—Egun on, Leire Irazoki naiz, atzo bertan izan nintzen erreserba egiten.

Ordenagailuan nire datuak sartu ondoren, giltzetako bat hartu zuen emakumeak.

—Barkatu... Ez duzu Zian familiarik izango?

—Ez. Zia? Herriren bat?

—Berako auzo bat da, zure keinu batek pertsona bat gogorarazi dit. Barkatu, bigarren solairuan duzu gela, egonaldi ederra izan dezazula.

Eskailera kiribilduek gelaraino eramane ninduten. Balkoia ireki eta kanpora atera nintzen, harrerako emakumea lorategian zebilen. Deblauki hark aipatutako Zia etorri zen nire pentsamenduetara. Zia zen Pilirik gurutzean markatua ikusi nuena, gelara sartu eta, mapa poltsatik ateratzean, klaxona entzun zen. Nekaneren Ford zuria hoteleko aparkalekuan sartzen ari zen. Arrapaladan bere bila jaitsi nintzen.

Inoiz baino ederragoa zegoen, ilea motots batean bildua, soineko loredun estua eta belarritakoekin bat egiten zuten ezpain gorriak.

—Nekane! —oihukatuz berarengana jaurti nintzen.

—Banuen bai zu ikusteko gogo! Urteak dira Beran egon ez naizela.

—Ezagutzen duzu?

—Gaztetan Goiko argazkilariarekin lan egin nuen, bertakoa da.

—Orduan gidari lana zuk egin beharko duzu.

Bion arteko konexioa ikaragarria zen, hitz egin gabe elkar ulertzen genuen.

—Zer zabilta? Gutun bereziren bat ezkutatu nahian?

—Gutuna ez! Baina buruhaustea eman dizkit ditxosozko mapa honek.

Churrut hoteletik ez kilen dantzarekin atera ginen. Legia karrika gurutzatu genuen, Alzateko plazaraino. Erreka gurutzatzen duen harrizko zubi makurraren gainean, Nekaneri mapa erakutsi nion.

—Hauxe da Bortzirietako ihesaldi honetan burutik kendu ezin izan dudana mapa. Itsuen moduan aritu naiz, baina itxura hartu diot, depositua da bilatu beharrekoa. Lan gauean jardun zutenen depositura garamatza mapak.

—Depositua?

—Zian zerbait aurkitu behar dugula uste dut.

—Hauxe duzu Zia erreka —erran zidan erreka seinalatuz.

—Zia erreka izena da? Non hasten da erreka? Non amaitu?

—Lasaitu zaitez. Goazen izkinan dagoen tabernara, Zia erreka doinuak erlaxatuko gaitu.

Horrelaxe egin genuen. Auzoa tabernako terrazan mapa aztertu bitartean, ordura arte gertatutako guztia azaldu nion Nekaneri.

—Ixak gurutzeak direlakoan nago.

—Zubiaren beste aldean badugu gurutze bat, kontrabandozko Kristo Santua. Irakurria dut, Berako bi kontrabandista, Errotako Tomasek eta bertze lagun batek, mugaz haraindiko ondoko herri bateko errekatik zetoze, uholdeak eraitsiriko baseliza bat ikusi zutela, eta hango errekan, Kristo hori aurkitu zutela. Guardiek gelditu egin zituzten bi lagunak, “Geldi hor! Nor dabil?” galdetzean, “Kristo!” erantzun zuten kontrabandistek, irudia bertan utziz. Gertatutakoa Beran kontatu ondoren, irudia aduanako enkantean ateratzerakoan, erosi eta Alzateko plazan jarri zen. Eta hemen dugu gurutzea.

Ez nuen ezer aipagarri ikusi gurutze hartan: Jesusen irudia iltzatua, plastikozko loreak apaingarri eta burdinazko barandan “Jauna Gorde gure eria. Ausardia” zioen testua besterik ez.

—Ez dakit zerikusia ote duen, baina Kristo honek lau iltze ditu, besteek hanka bat bestearen gainean izaten dute eta iltze bakarra bertan. Guztira hiru iltze —argitu zidan Nekanek.

Nekaneren azalpenak entzun bitartean, irudiaren ondoan zegoen buzoia erdi irekia zegoela ohartu eta zabaldu egin nuen. Ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena: narruzko diru-zorro bat, Arantzan aurkitutakoaren berdina. Beldurtu egin nintzen.

—Goazen, goazen hemendik norbaitek ikusi aurretik!

Diru-zorroa patrikan gorde, Nekaneri eskutik heldu eta airean alde egin genuen handik. Itzea karrikatik barna sartu ginen. Gurutzatzen genuen ororen begiradak sentitzen nituen. Elkarri ezer esan gabe aurrera jarraitu genuen, Nekanek geldiarazi ninduen arte.

—Zertan gabilityza? Arnasa hartu ezinean ihesean?

Elkar besarkatu eta barre algaraka hasi ginen une hartan. Atzean genuen iturriaren zipriztinek atera gintuzten algara hartatik.

—Disfruta dezagun, Leire! Begira, atzean dugu barojatarren etxea, Itzea. —erran zidan Nekanek—. Barojatarrek 1912an erosi zuten. Goiko argazkilaria hauen laguna zen, eta makina bat istorio kontatu zizkidan. Hauek etxea erosi aurretik ere bazuen bizitza etxeak; eraikuntzaren iparraldeko zoruan gerrako gorpuzkinak aurkitu ziren, hori dela eta ospitale izan zela uste da.

Diru-zorroatik burutik kendu ezin nuenez Churru hotelera bueltatu ginen. Diru-zorroatik irekitzean, kolore gorriko harrizko “F” letra eta paper bat aurkitu nituen. Zera zioen:

“Jarraitu BEKO gurutze-bidea, PIFT koloreko etxeak, 1748”.

Nekane urduri zegoen, halakoetan sudurra igurtzi eta ezpainak hozkatzen ditu. Tarte luze bat hitzik egin gabe egon ondoren, ohearen ertzean eseri eta zera esan zuen:

—Elizara! Elizara joan behar dugu, gurutze-bideren bat izango da bertan!

Elkarri eskua eman eta San Esteban parrokiarantz abiatu ginen, udaletxeko plazaraino. Eliza izan aurretik dorretxe izandakoa, Berako herriaren zaindari ageri zen parrokia. Harmailadi luzea igo ondoren, organoaren doinuek harrera egin ziguten eliza gotikoan. Korura igo ginenerako organoak jotzeari utzia zion. Han ez zegoen inor, baina eserlekuan zerbait bazela ohartu ginen, koadro bat zirudien.

—Gurutze-bideko margolana da! BEKO gurutze-bidea? —erran zuen Nekanek eskuan hartuta.

Koadroa egurrezkoa zen, sendoa. Aurrealdean Kristo gurutzea eramanez margotua; atzealdean, berriz, kopa handi bat tailatua eta honen inguruan hitz batzuk irakur zitezkeen: Prudentia, Iustitia, Fortitudo eta Temperantia. Orduan, hots bat entzun genuen, zerbait erori zen elizan. Norbait lurretik jaiki eta elizako atetik irteten ikusi genuen. Korrika jaitsi genituen eskailerak gizonezko hura harrapatu nahian, alferrik ordea.

—Zer egin behar dugu margolan honekin? Prudentia, Iustitia, Fortitudo eta Temperantia. PIFT, harrigarria!

Berriro elizara sartu ginen. Elizaren bi aldeetan gurutze-bideko pasioko margolanak zeuden, VI. irudia falta zen, ordea, guk esku artean genuena. Zer esan nahi zuten hitz haiek? Mugikorrean esanahia aurkitu genuen.

PRUDENTIA - ZUHURTZIA: Zentzuzko erabakiak hartzeko gaitasuna.

IUSTITIA - JUZTIZIA: Besteekiko zuzentasuna eta ekitatea bermatzeko bertutea.

FORTITUDO - SENDOTASUNA: Beldurrei eta zailtasunei aurre egiteko ausardia.

TEMPERANTIA - NEURRITASUNA: Gehiegikeriak saihesteko eta oreka mantentzeko gaitasuna.

—PIFT, Deposituz hitz egiten ari da: egoerak ondo aztertu, zuzentasuna, ausardia, gehiegikeriak saihestu. Deposituzak dirua gordetzeko lekuak ziren, argia ikusten ari naiz. Jarraitu BEKO gurutze-bidea? BE?

Zalantzez betea, burumakur, aitzinean genuen herriko etxeko leihotetan zeuden M8ko banderatzak moreak eta leloak begiratzen paratu ginen: “M8 berdintasunerako bidean”. “Egin zenutelako gara...”. “Gora borroka feminista”.

—Iritsi naizenetik espioi lana besterik ez dugu egin. Goazen tarte bat hartzera. Bihar M8, egunari eman diezaiozun berea —esan zidan Nekanek.

Churrut hoteleko terrazara zerbait edatera gerturatu ginen.

—Herria ezagutu duzue? Benetan Ritaren antza duzula! Garai batean Zian bizi zen emakumea! Ez zen geldirik egotekoa! AILEBEKO herriak... primeran ezagutzen zituen.

—Barkatu! ALEBE esan duzu? —entzun nuena prozesatu nahian.

—Garai bateko hitzak, Bortziriak esan nahi nuen. Barkatu! Zerbitzari honek gehiegi hitz egiten du, zuei bost axola kontu hauek.

—Ez, ez, interesatzen zaizkigu. ALEBEK Bortziriak esan nahi duela diozu? ALEBEK ez du traizioa esan nahi?

—AILEBE esan dut: Arantza, Igantzi, Lesaka, Bera eta Etxalar. Ritaren asmakizunak, hitzekin jolastea gustatzen zitzaion.

—Eta Ritak BEKO gurutze-bideak aipatzen zituen? Zerbait esaten dizu irudi honek? —elizako VI. ilustrazioari ateratako argazkia erakutsiz.

—Ez dakit zer esan! Gurutze asko marrazten zituen Ritak. Etxalarren bada gurutze berezi bat, Iñarreko gurutzea. Baditu halako irudi berezi batzuk: Santiagoko eskola, suge edo buztan luze bat, mahatsak... Ritaren marrazkietan ere...

—Ageri ziren? —moztu zion Nekanek.

—Bai, marrazki ederrak egiten zituen, desberdinak, erreferente bat zen.

—M8an izendatu beharreko emakume horietakoa, orduan! —gehitu nuen.

—Bai, horixe! Zuek ere biharko mendi itzulia egitera etorri zarete?

—Mendi itzulia? —galdetu nuen.

—Bai, Bortzirietako Emakumeen* mendi itzulia. 09:00etan paratu dute hitzordua Etxalarko plazan.

—Etxalarren da orduan elkarretaratzea? Plan bikaina egin diguzu.

AILEBE Bortziriak bazen, ALEBE? BE? Buruan mila galdera nituela lokartu nintzen Nekaneren ondoan.

Martxoaren 8a, igandea

—ARANTZA, LESAKA, BERA ETA ETXALAR! ALEBE! Ritaren Bortziriak Igantzi kanpo utzirik —oihu eginez esnatu nintzen.

—Leire! Zer esaten ari zara? Ametsetan ere maparekin?

—Bai, zerbait argitu dut, ALEBE eta BE? Bera eta Etxalar, noski. Mezua jaso genuenean Beran ginen, Etxalarrera joan behar dugu.

—Eta hala egingo dugu, baina Martxoaren 8ko mendi buelta egitera, ezta?

Kotxea martxan jarri eta M8a mendi-buelta eginez goatzera abiatu ginen. Emakume talde ederraren konpainian Etxalarko inguruak ezagutzeko beta izan genuen. Umore onez, kantuan bueltatu ginen Etxalarrera. Taldean bazen Ane Irisarri izeneko historialari afizionatua, eta honek herrian bisita gidatu bat egitera gonbidatu gintuen.

Kultur etxean abiatu genuen bisita, Etxalarko etheen historia eta izenez gozatu genuen Iñarrea etxera iritsi ginen arte. Izena entzun bezain laster, laino beltza burura bueltatu zen. Gurutze-bidea, BE, Etxalar, Iñarreko gurutzea... Aurrean genuen Iñarreko gurutzea.

—Gurutze berezia, ezta? Zergati bibliko eta alegorikoak ditu: Santiagoko eskola, suge edo buztan luze bat —azaldu zigun Anek.

—Gurutze honek ba al du irudi honekin loturarik? —vi. ilustrazioko argazkia erakutsiz.

—Baliteke. Alde batean, Kristoa gurutziltzatuta ikus daiteke; beste aldean, berriz, Ave Mariaren elezaharra duen idazki bat duen garezurra. Veronica zuzenean irudikatzen ez den arren, Kristoren aurpegiaren unea modu inplizituan erretratatzan du: Ama Birjina minaren lekuko gisa agertzen da, eta gurutzea enpatiazko kontenplaziorako gonbidapen bisual bihurtzen da, seigarren urtarorearen ekintza errukiorraren ildotik. Ez dut orain arte inoiz lotura hori kontuan hartu.

—Eta zein urtetakoa den esaten jakingo zenuke?

—xviii. mendekoa, 1735 inguruan egina dela esango nuke.

Aneren gidaritzapean egindako herriko bisita bertan amaitu genuen. Nekane eta biok gurutzearen eskailera-mailan eseri ginen. Iñarreko gurutzea ibilbidearen parte izan zitekeen.

—Hurrengo pausoa nora eman? BEko gurutze-bidea?

— Elizara, nola ez! Han aurkituko ditugu gurutze-bideko irudiak.

Iñarreko gurutzearen atzean Andra Mari parroko kanpandorrea ikusgai genuen. Estelaz inguraturiko pasilloa igaro ondoren eliz barrenera sartu ginen. Gurutze-bideko irudien arrastorik ez zen bistan. Elizan zebilen emakumea hurbildu zitzaigun.

—Barkatu, baina eliza bisitatzeko ordutegia amaitu da.

—Oraintxe alde egingo dugu, baina galdera bat egin nahiko genizuke. Parrokian Gurutze-bideko margolanik ba al da?

—Ez, kendu egingo zituzten. Horrexegatik dugu orain bisita mugatua, elizan lapurretak izan direlako. Via Crucisa egin nahi baduzue hurbil zaitezte Santa Krutz ermitara, nahiko gurutze bada han inguruan.

Bazkaltzeko betarik ere hartu gabe, Santa Krutz ermitara joan ginen. Tximista erreka ondoan kokatutako ermita itxirik zegoen. Kanpoan baziren ordea, neurri handiko gurutzeak.

—Atera ezazu mapa!

—Bai, gurutzetan dauden grabatu berak ageri dira mapan, oraingoan amaierara iritsi garela uste dut. VI. gurutzea aurkitu behar dugu.

Elizaren aurrean nahiz erreka oinetan zeuden gurutzeak aztertu genituen. Irudi bereziak zituzten gurutzeak. Lehenengo gurutzeak “1799” zuen inskribaturik. Beste baten azpian bazen arrosa sorta eder bat. Elkarri ezer esan gabe harantz abiatu ginen. Elizatik kontatzen hasi eta seigarren gurutzea zen. Gurutzearen aurrean zerraldo geratu ginen.

—Aurrean dugu, deposituaren gurutzea. Hauxe da kontrabandistek altxorra gordetzeko tokia?

—Hau zen dena?

—Ez dakit. Agian gurutzearen azpian? Inguruan lurperatua egonen da depositua? Nahikoa dela uste dut, ibilbide polita egin dugu depositua aurkitu nahian, baina... Nire altxorra zeu zara!

Herrira bueltatu ginen. Plazan, bat egin genuen Martxoaren 8ko taldearekin. Azken aldarriak egitera hainbat emakume igo ziren, haietako bat ezaguna genuen, Karmele.

—Egin zenutelako gara! Hainbat bidegurutze askatu behar ditugu, trabak zapalduz aurrera eginez! Sorginen irribarrea gara gu. Jarraitu bidea, altxorra zeurea da!

Karmeleren hitz hauekin amaitu nuen Bortzirietako egonaldia. Irribarretxo batez, atea guztiz itxi gabe, Bilbora bueltatu ginen.

Apirilaren 1a, asteazkena

BORTZIRIETAKO HERRIEN MARMARRA alde batera uztea zaila zen. Gauetan Barojak idatziriko liburuak eskuan harturik lokartzen nintzen. XIX. mendean kontrabandista talde batek kode sekreturen bat erabiltzen zuela aipatzen zuen liburutako batek, “etxeen ibilbideak” deitzen omen zioten. Deposituez ari zela ziur nengoen. Nekaneke ere ikerketa lanekin jarraitu zuen, baina salgai zeuden etxebizitzaren inguruko ikerketa zen berea.

Asteazken eguerdi hartan Nekaneke laneko telefonora deitu ninduen.

—Eiderrek deitu dit. Etxe bat suertatu zaio Etxalarren salgai. Zer iruditzen?

Lekuz kanpo hartu ninduen dei hark, baina, agian, deposituaren maparekin jarraitzeko unea iritsi zen? Aste Santuko oporretarako planik ez genuenez, Bortzirietara bueltatzea erabaki genuen. Etxalarko etxe hura ikusiko genuen. Iriondoa landetxean hartu genuen Aste Santurako logela.

Apirilaren 2a, osteguna

GOIZA ARIN IRITSI ZEN. Eiderrekin apaiz etxea izandako eraikuntza ikusteko hitzordua goizeko 09:00etan genuen. Liburuz beteriko apalategiak zituen gelarekin hasi genuen bisita. Arreta deitu zidan apalategiko kaxa herdoildu batek. Eider eta Nekane goiko solairura igo zirela aprobetxatuz, kaxara hurbildu nintzen. Kanpoan PIFT irakur zitekeen, kaxa ireki eta urre koloreko “I” letra aurkitu nuen. Letra poltsan gorde, eta Eiderren atzetik etxea ikusten jarraitu nuen. Barnean neraman urduritasuna. Eiderrek izugarrizko jarduna zuen.

—Hemen bizi izandako Pello apaiza, maitatua zen herrian. Berak eta hainbat herritarrek zerbait ezkutatzan omen zuten etxeetan. Dokumentuak, urrea... inork ez daki zer zehazki. Euskararen defendatzaile sutsua zen. Eta etxea zer? Gustukoa duzue? —amaitu zuen.

—Etxea ederra da... baina biontzat handiegia. Ezta, Leire?

—Bai, hala uste dut nik ere. Eskertzen dizugu... baina ez da bilatzen ari garena.

—Zerbait txikiagoaren bila zabilzate? Badut atiko bat, ikusi nahi duzue?

—Bai, ikusiko dugu.

Eiderren atzetik abiatu ginen. Maparen oihartzuna martxan nuen, “P”, “F” eta oraingoan “I”. Antsolokueta auzoari sarrera ematen dion etxeko atikoa zen ikusi beharrekoa, Arrosetako etxea. Leihoak irekitzean errotoaren presaren kantua entzun genezakeen, etxea ongietorria ematen ari zitzagun.

—Honezkero jakingo duzue hemengo gertaeraren berri? —erran zuen Eiderrek—. Trabuko delakoarena! Gurutze-bidearen eta garbilekuaren inguruan ikusi omen zuten; aspaldiko kontuak, kondairak kasik! Rita izeneko emakume bati konfiatu omen zizkion bere gordelekuak.

Hau entzutean Nekane eta bion begirada gurutzatu zen, pentsamendu bera etorri zen bion burura, *“Jarraitu BEko gurutze-bidea, PIFT koloreko etxeak, 1748”*.

—Rita aipatu duzu? Gurutze-bidea?

—Beti entzun izan dut garbilekuan, arropa garbitzeaz gain, emakumeek lan asko egiten zutela —argitu zigun Eiderrek—, gaur Ostegun Santua izanik litekeena da, prozesioren bat izatea, gurutze-bidea hemen bertan hasi eta Kamioa etxean amaitzen da.

Ahalik eta azkarren Eider agurtu, Nekane eskutik heldu eta eskailerak arrapaladan jaitsi genituen. Antsolokueta auzoko garbitegira hitzik esan gabe iritsi ginen.

—Hau da emakumeen babeslekua!

—Banekien mapa ez zenuela Bilbon utziko! Eta esku artean duzuna?

—“I” letra. Apaiz etxean aurkitu dut, ez dut kontatzeko betarik izan. “PIF”, “T” falta zaigu!

Nekane garbitokiaren atzean zeuden gurutzeak ikustera abiatu zen eta ni haren atzetik. Harri gorritz eginiko gurutze zaharrak ziren. Kamioa etxeraino jarraitu genuen. Garai batean, azken gurutzea han izango zen, baina gurutzearen euskarri izandakoa besterik ez zen geratzen. Euskarrian, zerbait bazegoen inskribaturik; zaila zen, ordea, idatzitakoa antzematea.

Atzera egin genuen hasierako gurutzeak ikusteko, haietako batek “PIFT 1748” zuen inskribaturik. Gurutzearen aurrean belauniko jarri eta gurutzea haztatzen hasi nintzen, data bat zetorren.

—Leire! Zer zabilta? Penitentzia egiten?

Une hartan, gurutzearen atzean zintzilik zegoen “T” letra ikusi nuen. Letra guztiak ilaran jarri genituen gurutzearen aurrean, PIFT.

—Zer egingo dugu? —galdetu zidan Nekanek.

Ostegun arratsalde osoa landetxeko gelan igaro genuen. Mapa, letrak, mezuak. Gurutzea aurkitu genuen, baina depositua?

Apirilaren 3a, ostirala

ETXE ETA KARRIKAK ALDE BATERA UTZI, eta Putzubeltzerainoko ibilbidea egitera, Arantzara abiatu ginen. Kotxea utzi eta maldan behera doan galtzada hartu genuen. Errekastoen ibilbideari jarraituz, belar-bola egin berrien usainak biziberritu gintuen.

Bueltan, Ostolo baserriaren aurrean Luzio ikustea iruditu zitzaidan.

—Luzio?

—Bai, horixe. Zer zabiltza?

—Parajeaz gozatzerantz etorri gara. Hau Nekane da —esan nion aurkezpenak eginez.

—Joxe anaia hemen bizi da, amatxi Inesen baxera piezaren bat ere izanen da barrenean, ikusi nahi duzue?

Ezin izan genuen ezezkorik eman eta baserriko sukaldean salda hartzen amaitu genuen, Joxe eta Luzioren konpainiaz gozatuz. Portzelanazko platerak ikusteko tarte ere hartu genuen; Luzioren arasan ikusitakoaren antzekoak ziren.

—Plateren bat esku artean har dezaket?

—Noski! Zuk aukeratu.

Lesakako Mikelenea etxearen irudia zuen platera hartu nuen, platerari buelta eman eta IPTK zuen idatzia.

—IPTK, letra hauen esanahia zein den ba al dakizue?

—Ezta arrastorik ere! Amatziren kontuak. Duela urte batzuk Karmele ibili zen banan-banan platerak aztertzen, agian berari galdetu beharko diozue —esan zidan Luziok.

—Karmele? Nola ez! Beti gure aurretik.

—Begira honek Iriondoa etxea dirudi. Seigarren zenbakia duen platera. Har genezake? —erantsi zuen Nekane.

Iriondoa etxeko platerari buelta ematean PIPT jartzen zuela ikusi genuen, aho zabalik geratu ginen. Luzio eta Joxeri esker ona adierazi eta bideari jarraitu genion.

Arantzara bitarteko bidean, buruko ahotsak bueltatu ziren. Iriondoa, etxe hura zen gakoa? Arantzara iristean landetxera joan ginen zuzenean, Xanti jabearekin hitz egin behar genuen. Etxe

hartaz hainbat informazio eman zigun: 1738an berreraikia izan zela, beraiek 1998an erosi eta berritu zutela, eraberritze lanetan traste zahar franko aurkitu zutela...

—Behealdean, zuen logelaren alboan denda bat zegoen, etxearen zati hori ez da gurea izan duela gutxi arte. Almazen moduan erabiltzen dugu. Nahi al duzue ikusi? —galdetu zigun Xantik.

Hurrengo goizean gela hura ikustekotan geratu ginen. Ate haren atzean, errebara ematen zuen etxearen zati hartan, pistaren bat aurkitzeko ilusioarekin pasa genuen ostiral arratsaldea.

Apirilaren 4a, larunbata

SUKALDERA IGO GINEN GOSALTZERA, han zegoen Xanti kafea prestatzen.

—Almazeneko giltzak gainean ditut. Zuen logelaren ondoko atetik sar zaitezke. Amaitzean, giltza sukaldeko mahaian uztea eskertuko nizueke.

—Bai, nola ez. Milesker.

Gosaria amaitu bezain pronto ate hura irekitzera joan ginen. Garai batean izandako dendaren arrastoak ikus zitezkeen, egurrezko mostradorea, pisu zaharra, barrikak, kaxak...

—Zer da oraingoan aurkitu behar duguna?

—Edozer arrasto.

Goiz osoa almazena miatzen eman genuen: egunkariak, azulejuak, liburuak, soberakinak... baina bilatzen ari ginena izan zitekeenaren arrastorik ez. Une batez, Nekane egurrezko mostradore zaharraren atzean zintzilikatutako argazkiari begira gelditu zen. Argazkia mostradore hartan ateratakoa zen, bi emakume eta ume txiki bat; atzean berriz, kaxaz beteriko armairu luze bat ikus zitekeen. Argazkian ageri zen armairua miatzeari ekin genion, baina ez genuen ezer berezirik aurkitu.

—Itxaron... Armairu hau mugitua izan da.

Elkarri begiratu eta bi eskuekin armairuaren alde banatatik helduta, astiro-astiro bultzatzen hasi ginen. Begiak igurtzi nituen aurrean neukana sinetsi ezinik, armairuaren atzeko horman PIFT zizelkatua zegoen harrizko horman.

Poltsan gordeak nituen letrak atera eta harrian zizelkaturiko zuloetan, banan-banan, P-I-F-T letrak jarri nituen. Letra bakoitzaren tamaina bat zetorren zizelkaturiko zuloarekin.

—Eta orain?

Aurrean nuen irudia begiratu eta zer esan jakin gabe geratu nintzen. Ezintasunak itsuturik harri eta karezko horma kolpatzen hasi nintzen. Ukabilaz emandako bultzada sendo haietako baten ondorioz zerbait mugitu zen. “Purrunt”, goitik behera erori zen horma zati bat. Tranpa bat zirudien, aurrean egurrez eginiko metro bateko altuerako solairu bat genuen, eta barnean bidoi antzeko zerbait ikus genezakeen. Kaxa bat eskailera moduan jarri eta hutsunera igo ginen. Barruan dena ilun zegoen, mugikorreko linterna piztu eta belauniko azpian ikusten genuen 2001

inguruko bidoiraino hurbildu ginen. Bidoiko bideak, azpian zegoen beste gela bateraino eramanez gintuen. Gela hartan, egurrezko kutxa bat zegoen itxita.

—Badugu giltzarik kandadu hau irekitzeko?

Une hartan, amama Mari Luzek, hil aurretik esan zizkidan hitzak etorri zitzaizkidan burura: *“Izanarekin lotua dago izena, mendeetan zehar mantendu dena esfortzu eta maitasun handiz jasoa izan da. Etxe aunitz izan ditzakezu, bertan gertatzen direnak du garrantzi, aurkitu benetako giltza”*. Hau esan eta giltza txiki bat zeraman giltzari gorri oparitu zidan. Talisman moduan beti gainean neraman giltzaria. Giltza atera eta egurrezko kutxa irekitzea lortu nuen.

Une hartan mugikorra joka hasi zen, Karmele zen.

—Banekien lortuko zenuela. Orain, zuen esku geratzen da sekretua. Garai bateko depositua, koltxoiaren gordelekua. Ritak dena idatzia utzi nahi izan zuen. Iriondoa etxea saldu zenetik hortik atera beharrean geunden, baina ez da erraza izan. Amatxi Inesek sekretua gorde zuen, Rita haren oinordekoa izan zen eta orain zu zara oinordeko. Lehenbailehen hortik atera eta aurkitutakoa ondo gorde behar duzue, depositua erabili —hau esan eta eseki zuen.

Kaxa barnean gau laneko froga idatziak aurkitu genituen: mendi ibilbideak, bidezidorrak, ezkutalekuak, borda edo baserri seguruak, informatzaileen sareak, arriskuaz ohartarazteko kode ezkutuak, eta...

—Kaxa hemen utziko dugu, baina barnean dagoena atera behar dugu —esan nion Nekaneri.

Sarbideko bidoira igo nahian genbiltzala, zirrikitu batetik argia sartzen zela ohartu ginen. Hurbiltzean ate bat ikusi genuen, bultza eta presaraino eramaten gintuen bidezidor batean aurkitu ginen.

Abenduaren 24a, osteguna

GABON GAU HURA BEREZIA ZEN NIRETZAT. Nekane gure etxera afaltzera etorriko zen lehen aldiz. Afaltzea bukatzean, amak aspaldiko argazkiak atera zituen, Nekane eta biok sofan eseri eta haiek ikuskatzeari ekin genion. Han nengoen ni anaiarekin hondartzan, gurasoekin egindako bidaiak, amama Mari Luzen urtebetetzeak... Halako batean espero ez nuen irudi bat azaldu zen argazki-album hartan.

—Zeintzuk dira argazkiko hauek, ama?

—Amatxi Iñaxi eta honen betiko laguna Rita, aurrean dagoen umea amama Mari Luz da.

Lipar batez dena ulertu nuen. Arrosetako etxea gure ezkutaleku sekretua bihurtuko zen, deposituaren “g”ezkutua.